Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

5723

EBAZPENA, 2009ko urriaren 7koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, NBE-2008BA/0010 erreferentziako proiektuan jardun behar zuen José Gabriel Martínez Borras lankide boluntarioak diru-laguntzaren zati bati uko egiteko aurkeztutako eskabidea onartzeko dena. Proiektu hori Máster en Cooperación Internacional Descentralizada entitateak aurkeztu zuen Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko 2008ko Fondoaren kontura Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko, Nazio Batuetako nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei laguntzak emateko deialdian.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko martxoaren 12ko Aginduan xedatutakoarekin bat, Nazio Batuen Erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horiei elkarturiko pertsona juridikoentzako laguntzak deitu ziren. Laguntza horiek lankide boluntarioei 2008ko ekitaldian bekak emateko dira, erakunde horiek herrialde pobretuetan egiten dituzten garapen-programetan parte har dezaten, hain zuzen ere. Aipatutako aginduan ezarritakoarekin bat, 15.950,19 euroko diru-laguntza esleitu zitzaion Máster en Cooperación Internacional Descentralizada entitateari, José Gabriel Martínez Borras lankide boluntarioaren gastuak ordaintzeko, zeinak Venezuelan bete behar baitzuen bere zeregina. 2008ko abenduaren 16ko Ebazpenaren bidez, diru-laguntzaren zati bati uko egiteko eta jarduna beste leku batean burutzeko eskabidea aintzat hartu da eta, ondorioz, diru-laguntza 15.442,39 eurokoa da egun eta burutzeko lekua berriz, Costa Rica.

Bekadunak, hala ere, 2009ko urriaren 2an, diru-laguntzaren zati bati uko egiteko eskabidea igorri zion Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Uko egiteko arrazoiak pertsonalak dira.

Orain arte 9.570,19 euro ordaindu dira; horietatik 442,39 euro Máster en Cooperación Internacional Descentralizada entitatearen trebakuntza- eta administrazio-gastuei dagozkie, eta 9.127,80 euro, berriz, lankidearen gastuak ordaintzeko diru-laguntzari. Lankideak 204 egunez baliatu duenez laguntza hori, 8.383,56 euroko diru-laguntza dagokio, eta, ondorioz, 744,24 euro itzuli behar ditu, eta ez da bigarren ordainketarik egingo.

Azaldutako guztiagatik, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak entitate onuradunak eskatutako aldaketak onartzearen aldeko txostena egin du. Beraz, hau

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

5723

RESOLUCIÓN de 7 de octubre de 2009, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la solicitud de renuncia parcial al cooperante José Gabriel Martínez Borras que debía desarrollar su actividad en el proyecto con referencia NBE-2008BA/0010 presentado por la entidad Máster en Cooperación Internacional Descentralizada dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca con cargo al FOCAD 2008.

De conformidad con lo establecido en la Orden de 12 de marzo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se convocan ayudas a Organismos Internacionales del sistema de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a las personas cooperantes voluntarias que participen en proyectos de desarrollo de dichos Organismos Internacionales en países empobrecidos en el ejercicio 2008 se concedió a Máster en Cooperación Internacional Descentralizada una ayuda de 15.950,19 euros para sufragar los gastos del cooperante José Gabriel Martínez Borras que debía desarrollar su actividad en Venezuela. Tras la estimación de la solicitud de renuncia parcial y cambio de lugar de ejecución mediante Resolución de 16 de diciembre de 2008, la subvención pasa a ser de 15.442,39 euros y el lugar de ejecución Costa Rica.

Con fecha 2 de octubre de 2009, fue remitida a esta Dirección de Cooperación al Desarrollo la solicitud de renuncia parcial a la beca. Los motivos de la renuncia son de índole personal.

El pago realizado hasta la fecha asciende a 9.570,19 euros, correspondientes a los gastos de formación y administración de la entidad Máster en Cooperación Internacional Descentralizada (442,39 euros) y una subvención de 9.127,80 euros para ayudar a sufragar los gastos del cooperante. Siendo el total de días disfrutados 204, le corresponde una ayuda de 8.383,56 euros, lo cual implica la devolución de 744,24 euros y la no realización del segundo pago.

Por todo lo expuesto, la Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Máster en Cooperación Internacional Descentralizada entitateak PNUD-Costa Rica-ren deszentralizazio-programari laguntzeko proiektua aurkeztu zuen, Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei zuzendutako diru-laguntzetarako deialdiaren karietara. Diru-laguntzok, 2008an, Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko dira, Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko 2008ko Fondoaren kontura. Bada, deialdi horren baitan bekari zati batean uko egiteko Máster en Cooperación Internacional Descentralizada entitateak aurkeztutako eskabidea onartu egiten da. Ondorioz, 744,24 euro itzuli behar ditu, eta ez da bigarren ordainketarik egingo.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gizarte Gaietako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin, hala baitio ekainaren 19ko 7/1997 Legearen 49.2 artikuluak. Lege horren bidez, diru-laguntzen eta laguntzen araubidea arautzen da eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legea aldatzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 7a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia parcial solicitada por la entidad Máster en Cooperación Internacional Descentralizada en proyecto Apoyo al programa de descentralización del PNUD-Costa Rica presentado dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca con cargo al FOCAD 2008, lo cual supone la devolución de 744,24 euros y la no realización del segundo pago.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente Resolución, para su general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme a lo estipulado en el artículo 49.2 de la Ley 7/1997, de 19 de junio, por la que se regula el régimen de subvenciones y ayudas y se modifica la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2009.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.